

Elkarri



Elkarri



1. Elkarriren jardueraren zimenduak

Elkarri elkarrizketa eta akordioaren aldeko gizarte mugimendua da. 1992. urtean jaio zen euskal gatazka edo arazoa konpontzeko eredu baketsu eta elkarrizketatua defendatzeko eta mobilizatzeko. Bi ezaugarri ditu: aniztasuna eta independentzia. Bere oinarri soziala jatorri politiko, sozial eta kultural desberdineko pertsonen dago osatuta. Azken hamar urtetan pertsona hauek indarkeriarik eza, elkarrizketa eta giza eskubideak defendatu dituzte ekimen publikoen eta publikoak izan ez diren ekimenen bidez, gizartearen oinarrian eta herri mailan zein politika munduan.

1.1. Elkarriren historiaren etapa nagusiak

Lehen etapak, 1992ko abendutik 1994ko maiatza artekoak, Elkarri gizarte mugimenduaren oinarria finkatzeko balio izan zuen. Etapa hori elkarrizketaren defentsan eta Elkarri aurkezten oinarritu zen.

1994ko maiatzetik 1996ko maiatzera bere laguntza sozialak sendotu zituen Elkarrik, bai eta bere proiektuaren oinarri teorikoa ere, bere arreta Irlandak eskaintzen duen eremuan eta lehen Bake Konferentzia antolatzen jarri zuen.

Hirugarren etaparen muina izan proposamena izan zen, negoziazio baten eta bake prozesu baten gai konplexuenei konponbidea aurkitzeko alternatiba posible baten inguruko azterketa.

Laugarren etapak, 1998ko ekainetik 2000ko ekaina artekoa, su-eten garaiak markatuta egon zen. Elkarriren ahalegina bake prozesu batek behar dituen jarrerak zabaltzea eta prestatzea izan zen.

Bosgarren etapak, 2000ko ekainetik 2002ko abendua artekoak, bake prozesu elkarrizketatu baterako adostasunean oinarritutako metodoa definitzeko balio izan du. Inolako zalantzarik gabe, Bake Konferentziaren prozesua izan da etapa horretako ardatza.

(Gai honi buruz gehiago jakin dezakezu «Elkarri. Hamar urte. Irudi bidezko kronika» liburuan)

1.2. Jarduten dugun arazoengatik inguruko analisia

Hiru arazo nagusik astintzen dute euskal gizartearen azkeneko hamarkada hauetan: indarkeriak, gatazka politikoak eta erantzun ez-demokratikoak.

–Indarkeria. Indarkeria amaitzea da gure gizartearen lehentasun nagusia. Hilketa gehiago ez egotea eta bizitzeko eskubidea errespetatzea da premia nagusia, ETArri aldarrikapen zuzena litzatekeena. Baieztapen hau printzipio etiko, moral, politiko, eta demokratikoetan oinarritzen da, baita praktikoetan ere. Gure gizarteak ez du onartzen indarkeria erabiltzea; bere arazoak hausnartzeko eta konpontzeko heldua dela deritza. Eta modu baketsuan, politikoki eta demokratikoki konpondu nahi ditu aipatu arazoak.

–Arazo politikoak. Bizikidetasun politikoak gauzatzeko oinarritzko egituren (esparru politikoak, lurralde antolakuntza, erabaki eta burujabetza esparruak, e.a.) inguruko desadostasun sakonak dira haren adierazle aipagarrienak. Indarkeria ez da arazo politikoaren «berezko» ondorioa. Arazo politikoaren funtsean dago, aitzitik, egungo konstituzio eta estatutu markoak ez duela adostasun soziopolitiko desiragarriak.

–Erantzun ez-demokratikoak. Estatuak zenbaitetan amore eman izan du ETArri indarkeriari zein arazo politikoari metodo ez-demokratikoekin erantzuteko tentazioaren aurrean. Gaur egun, «guztiak balio du» premisan oinarritutako estrategia indartzen ari da, printzipio eta oinarritzko askatasunak urratuz. Sistema demokratikoaren berme eta askatasunen atalez ataleko deuseztapen batez ari gara. Gure gizartearen gehiengoak atzerakada demokratiko honen aurka dago.

(Analisi hau sakonean ezagutzeko «Zubi berri bat Eraiki» Plan Estrategikoaren Jarduera-plangintzaren 11. orrialdera jo dezakezu)

1.3. Elkarriren motibazioak eta helburuak

Bere motibazio nagusia sufrimenduaren eta hau eragiten duen giza eskubideen aurkako indarkeriaren amaiera eta sufrimendua pairatzen duten biktima guztiekiko elkartasun aktiboa dira.

Elkarriren existentzia argitzen duen azken arrazoiak hau lortzea da: bakea gure herriarentzat eta bizikidetasun normalizatua askatasunean, berdintasunean, aniztasunean eta oinarritzko adostasunean.

(Honetaz gehiago jakiteko Jarduera-plangintzaren 12. orrialdera jo dezakezu)

1.4. Elkarriren printzipio gidariak

1. Giza duintasunarekin eta bizitza eskubidearekin konpromisoa. Pertsona guztien eskubideen defentsa desberdintasunik egin gabe.

2. Gure gizartearen aukera politiko guztientzat baldintza berberak defendatzeko eta hauetako bat bera ere ez baztertzeko konpromisoa.

3. Adostasun pluralak bilatzeko eta tradizio politikoak integratuko dituen negoziazio konponbide-prozesuekin konpromisoa.

4. Printzipio demokratikoekin eta gizartearen erabaki-askatasunaren errespetuarekin konpromisoa, eta ordenamendu juridikoa aldaezina ez dela defendatzea.

(Honetaz gehiago jakiteko Jarduera-plangintzaren 13. orrialdera jo dezakezu)

1.5. Elkarririk proposatzen duen konponbide metodoa

Elkarririk elkarrizketa defendatzen du, gatazka konpontzeko metodo demokratiko, gizatiar eta eraginkor gisa, gizakion alderdirik hoberena abian jartzeko baldintza errealak sortzen baititu.

(Jarduera-plangintzaren 14. orrialdean elkarrizketaren aldeko lau argudio garatzen dira)

1.6. Lehentasunak

1. Premiazkoa: bizitza eskubidea.
2. Garrantzitsua: bazterketarik gabeko elkarriketa gunea sortu eta akordio eta adostasun pluralak lortu.
3. Beharrezkoa: desblokeorik, indarkeriarik, bazterketarik, aldebakartasunik eta betorik gabeko baldintzak sortzea.

(Lehentasun hauek Jarduera-plangintzarren 15. orrialdean hobeto zehazten dira)

1.7. Elkarriren zeregina

VII. Batzar Nagusiak 2003-2005 bitarteko Elkarriren zeregina zein izan behar duen erabaki zuen:

- Hamar urtez metatutako esperientziatik ikasi eta bake prozesu erabakitzailerik bat abiarazi.
- Bizitza eskubidearen defentsan lehentasunak finkatu, hala nola bazterketarik gabeko bermeak izango dituen elkarriketa guneak sortu, indarkeriarik, bazterketarik, aldebakartasunik eta betorik gabeko baldintzak gauzatu.
- Egitasmo hau lagunduko duten gizartearen, politikarien eta nazioarteko erakundearen indarrak pilatu oinarriko printzipioak babes ditzaten.

(Elkarriren zereginaren inguruan aipamen zabalagoa Jarduera-plangintzarren 16. orrialdean)





2. Elkarriren funtzionamendua

2.1. Nola funtzionatzen du Elkarri?

1. Batzar Nagusia. Elkarriren lan-ildo nagusiak onartzen dituen erabaki-organurik gorena da. Bi urtetik behin egiten da eta Elkarriren kide eta kolaboratzaile guztiak parte hartzen dute. 2003ko martxoaren 1ean egin zen azkenekoan «Zubi berri bat eraiki» Plan estrategikoa onartu zen.

2. Tailer Nazionala. Bi urtetarako aukeratzen diren 21 kidek osatzen dute. Batzar Nagusiak onartutako lan-ildoak garatzea da bere zeregina. Astero biltzen da Elkarriren jarduerarekin zerikusia duten gaiak aztertzeko.

3. Herrialde Batzarra. Herrialde bakoitzeko Elkarriren kideak eta kolaboratzaileak bertaratzen dira. Hilabetero egiten da eta gizarte mugimendu honen parte-hartze eta erabakitze ohiko-organua da.

4. Tailer Lokalak. Une honetan, Elkarri 70 Tailer Lokal ditu EAEn, Nafarroan, Bartzelonan, Madrilan eta Bruselan eta hauetan 500 lagunek parte hartzen dute. Elkarriren helburuak eta ekimenak gizarteratzea da Tailer Lokalen xedea.

(Elkarri erabaki organuekin Barne-araudi bat badu, begiratu nahi izanez gero)

2.2. Zer da Elkarriren Tailer Lokal bat?

Helburu berbera duten pertsonen mugiarazten duten talde bat da: bizi dugun gatazkari elkarriketa bitarteko irtenbide baketsu eta demokratikoa defendatuz, pertsona hauek prest daude xede honen alde euren denboraren tarte bat xahutzea Elkarri bezalako gizarte mugimendu baten ideiak defendatzeko.

Tailer Lokalak funtzio bikoitza du:

- Elkarriren ekimenak herrian suspertu eta proposamenak herrian hedatzen ditu.
- Topaleku bat da egungo egoera soziopolitikoaren azterketa egiteko eta Elkarriren jardueraren proposamen desberdinen eztabaida egiteko.

Tailer Lokalak osatzen dituzten pertsonen «Elkarriko kideak» deritzaie eta gizarte mugimendu honen ekimenen oinarritzko sostengu dira. Kideek adosten dute bileren aldikotasuna (astean behin, hamabostean behin, hilero) eta ekintzak burutzen dituzte beti ere ekimen zehatz bakoitzeko prestatzen diren Liburu Kanpainaren laguntzaz.

Tailer Lokalek herrialde bakoitzeko Antolaketa Arduradunaren laguntza dute ekimenak aurrera eramateko tenorean. Pertsona honek Elkarrin lan egiten du eta Tailer Lokalak nahi duen guztirako duen lotura da. Gainera, zure proposamenak, aholkoak eta kritikak helarazi nahi baldin badituzu, Barne-komunikazio Arduradunarengana jo dezakezu (e-mail: barne@elkarri.org).

2.3. Zer esan nahi du Elkarriko kidea izateak?

Elkarriko kidea izateko ez da beharrezkoa inolako sinadurarik edota agiririk. Maiztasunez Tailer Lokaletako bileretara bertaratu eta ekimen desberdinetan laguntzen duen oro da Elkarriko kidea. Gauza zabala da eta norberaren grina eta gogoen araberakoa da.

Zuk erabakitzen duzu zenbat eta nola parte hartu nahi duzun. Adibidez, gerta liteke norbait maiztasunez joan nahi ez izatea, edota joan ahal ez izatea bileretara edota ekimen desberdinetara. Ez dago inolako arazorik. Tailer Lokalak jakin badaki antolatzen dituen ekintzetarako bere laguntza izango duela. Pertsona honi «Elkarriren kolaboratzailea» deitu ohi diogu.

2.4. Nola finantziatzen da Elkarri?

Gizarte mugimendu independentea den aldetik, Elkarrik autofinantziatua, zorrotasuna eta bere kontuen gardentasuna ditu irizpide.

Elkarriren diru-sarreraren zatirik nagusia 3.000 bazkideen diru-laguntzei esker biltzen da, hilero gutxienez 10 euro ordaintzen dutelarik. Gainera, «Elkarri» aldizkariaren harpidedun diren 500 pertsona daude zeintzuk urtero 27,05 euro ordaintzen dutenak. Beste horrenbeste pertsona dago unean uneko diru-laguntzak ematen dutenak.

Aurrekontuen gainerakoa –aurtengoan 100 milioi ingurukoa da– Tailer Nazionalak eta Tailer Lokalek garatzen dituzten kanpainetan lortzen da. Bestetik, Elkarrik bere aurrekontuei eutsi ahal izateko, artelanak saltzen ditu, dirulaguntzak eskuratzen ditu, hitzaldiak eman, etabar.


(2003. urterako Elkarriren aurrekontua jakin nahi baldin baduzu herrialdeko Antolaketa arduradunari eska diezaiokezu).





3. Bake Konferentzia berriaren proposamena

Atal hau Bake Konferentzia berriaren proposamenaren laburpena da. Ekimen honen egutegia eta ezaugarriak Jarduera plangintzaren hirugarren zatian, «2003-2005rako esku-hartze proiektuan», bilduta datoz.



3.1. Diagnostikoa

Egungo egoera bazterketaren eta eskaladaren logikaren menpe dago. Bizitzaren aurkako atentatuak, mehatxu sektarioa, ilegalizazioak eta egunkarien itxiera barne, dinamika honen adibiderik muturrenekoenak dira. Bazterketaren eta eskaladaren logika zentzugabea da oinazea zabaltzeko eta areagotzeko, arazoak larriagotzeko eta konponbideak oztopatzeko baino balio ez duelako. Gizarte gisa dugun beharrik nagusia premiazko erantzun eraikitzaile eta eraginkorra eskaintzea da, logika suntsitzaile honekin amaituko duena. Espiral honetatik ateratzeko alternatiba bat behar dugu: eskaladaren logika haustea eta «bestea» onartzea. «Besteak» gure gizartearen parte izan direla, direla eta izango direla onartzea, eta konponbidea elkarrekin aurkitu behar dugula onartzea. Logika honek eskatzen duena da indarkeriarik ezaren eta bazterketarik gabeko elkarrizketan behin eta berriro insistitzea.

3.2. Erreferentzia-proposamena

Diagnostiko honen arabera Elkarriren VII. Batzar Nagusiak berriro saiatzea erabaki zuen. 1995eko I. Bake Konferentziaren eta 2001-2002ko bigarrenaren ondoren, esku-hartze proiektu honen erreferentzia-proposamena elkarrizketa alderdianitzerako eremu bat prestatzea da, Bake Konferentzia berri bat prestatzea, 2004ko hauteskunde orokorren ondoren garatzeko.

3.3. Argudio nagusiak

Erabaki hau hartzeko argudio nagusiak bi dira:

–Aurreko Bake Konferentziak aurrerapen garrantzitsuak lortzea ahalbidetu zuen: nazioarteko babesa, gizartearen parte-hartzea, elkarrizketarako metodologia eta adostasun-zirriborroak. Halere, ez zuen lortu zirriborro horiek akordio esplizitu batean bilakatzea. Aurreko Bake Konferentzian lortutakoagatik eta lortu ez zenagatik, Elkarriren konpromisoa amaitu gabeko elkarrizketa hartan hasitako lana osatzea edo amaitzea da.

–Egoerak bizi duen blokeoaren aurrean beharrezkoa da adostasunen bila lanean jarraitzea. Gizarteak konponbide bat nahi du eta itxaropena dauka lortuko duela. Ez dago konponbiderik indarkeriarekin. Ez dago konponbiderik elkarrizketarik gabe. Ez dago konponbiderik gizartearen zati bat bizikidetasunetik kanporatuz. Alternatiba indarkeriarik eta bazterketarik gabeko elkarrizketa da. Horregatik eta horretarako prestatuko dugu Bake Konferentzia.

3.4. Prozesuaren ezaugarriak

Bake Konferentzia prozesu berri honek aurreko esperientziak hartuko ditu oinarri gisa, eta lau proiektutan egituratuko da:

–Nazioarteko foroa. Bake Konferentzia honek Nazioarteko Kongresu batean islatuko den kanpoko laguntza garrantzitsua izango du.

-Foro politikoa. Prozesu honetan elkarrizketa politiko alderdianitza bultzatuko da bakerako printzipio, prozedura eta konpromisoen inguruko akordio bat lortzeko.

-Foro soziala. Elkarrizketa politikoarekin batera gizartearen aniztasuna ordezkatzeko duten erreferenteen foro bat bultzatuko da adostasun-eszenategien inguruan akordio bat lortzeko.

-Hiritar foroa. Bake Konferentzia berri honetan zehar, Elkarrik bakerako 100.000tik gora borondate mobilizatzeko helburua hartuko du bere gain.

Bake Konferentziaren hirugarren topaketa honen beste ezaugarri azpimarragarri bat ekintzak antolatzerakoan bertako, Estatu mailako edo nazioarteko eragileekin lankidetzazko izango da.

3.5. Nobedade nagusia

Elkarriren saiakera berri honen nobedaderik nagusia azken erabakia gizartearen esku egongo dela da. Bake Konferentzia berri bat martxan jartzeko erabakia, Elkarriren parte-hartze sareko 10.000tik gora lagunek proiektu hau babesteko prest dauden ala ez galderari baiezkoa ematearen menpe egongo da. Kontsulta hau parte-hartze txartel bat eramango duen foiletu bat zabalduz egingo da. Bake Konferentziaren prozesu bat bultzatzeak ahalegin handia eskatzen du eta, martxan jarri aurretik, ekimenak masa kritikoa eta kolaboratzaileen oinarri zabala edukitzea nahi du Elkarrik.

3.6. Prestakuntza lanak

Indarkeria, bazterketa, aldebakartasuna eta betoa dira blokeo-faktore larrienak eta bere ahulgune nagusia. Alderdi sendoena gizartearen gehiengoaren borondateetan aurkitzen da: indarkeriarik eza, elkarrizketa, pluralismoa eta berrespen demokratikoa. Analisi honen inguruan, 2003-2004 epean eta prestaketa gisa, Elkarrik elkarrizketaren eta bake-prozesu erabakitzaile baterako baldintza egokiak sustatzera bideratuko du bere jarduerak, sei helburu zehatzen arabera:

-Su-etena. Honako eszenategi baten alde borrokatu: su-etena, indarkeriarik eza, mehatxurik eza eta giza eskubideen errespetua.

-Legalizazioa. Askatasun demokratikoa eta aukera politiko guztien legalizazioa defendatu.

-Aldez aurreko adostasunak. Konponbide-prozesu baterako aldez aurreko adostasunak bilatzen aurrerapausoak eman.

-Gizartearen inplikazioa. Gizartearen inplikazio, parte-hartze eta mobilizazioa sendotu indarkeriarik ezaren eta elkarrizketaren alde.

-Kanpoko laguntza. Bake-prozesu bat babesteko kanpoko sare garrantzitsu bat osatu.

-Humanizazioa. Jarrerak, jokabideak eta diskurtsoak humanizatzeko ekimenak bultzatu.

Frente a la actual situación
hay
una alternativa

El marco: las voluntades sociales mayoritarias
Los principios: no-violencia, diálogo, acuerdo plural y libertad de decisión
La base: un compromiso plural y compartido al servicio de la paz
Dos soportes: el impulso social y el apoyo internacional
El proyecto: la propuesta de conclusiones de la Conferencia de Paz

Necesitamos tu colaboración
902 42 10 10
www.elkarri.org

Conferencia de Paz
ajustados a lograr un compromiso



araba

Arana, 7 - 7. bulegoa
01002 Vitoria-Gasteiz
tlf. 945 25 61 76 fax. 945 28 00 97
e-mail: araba@elkarri.org
Antolaketa arduraduna: Iñaki

bizkaia

Arenal, 5. SVRNE - 209. bulegoa
48005 Bilbao
tlf. 94 479 03 16 fax. 94 415 80 03
e-mail: bizkaia@elkarri.org
Antolaketa arduraduna: Maite

gipuzkoa

Avda. Madrid, 5
20011 Donostia
tlf. 943 45 93 75 fax. 943 45 07 58
e-mail: antolaketa.gipuzkoa@elkarri.org
Antolaketa arduraduna: Aitziber

navarra

Tudela, 18 - 2.G
31003 Pamplona-Iruña
tlf. 948 24 84 00 fax. 948 24 92 88
e-mail: antolaketa.navarra@elkarri.org
Antolaketa arduraduna: Daniel